

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARAMAIOKO UDALAREN 2011-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Aramaioko Udalaren 2011ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute Osokoaren kideek.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak -Udala eta bere sozietate publikoa barne hartzen dituenak- legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, Epaitegiak udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta bere ekonomia-finantzazko jarduera arautzen duen araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Bada, sarreraren atalean HKEEk azpimarratu du Udalak ez dituela Hiri Izaerako Lursailen Balioaren Igoeraren gaineko Zergari lotutako egitate zergagarrien gaineko kitapenak egiten, behin ordenantza fiskala 2005ean indarrean sartu zenez geroztik.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horren aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Diruzaintza Geldikina 8 mila euroan eta Funtz Propioak 272 mila euroan murriztu dituztenak.

Aramaioko Argindar Banatzailea, SA sozietate publikoari dagokionez, HKEEk legea betetzeari eta Urteko Kontuei buruz eman duen iritzia aldekoa da, nahiz txostenean bertan hainbat ez-betetze eta salbuespen jaso diren.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu eta kontabilitate, sarrera fiskal, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Udalaren finantza egoerari dagokionez, 2009-2011ko aldian aurrezki garbi positiboa izanagatik Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinak % 53 egin duela behera eta finantza erakundeekiko duen zorpetzea sarrera arrunten gainean % 25koa dela jakinarazi du HKEEK.